

IPAR EUSKAL HERRIARENDAKO
FINANTZAMENDUAK

Pays
Basque
euskal
HERRIA

EUROPAKO FUNTSAK
2023-2027



COMMUNAUTÉ
D'AGGLOMÉRATION

HIRIGUNE
ELKARGOA

COMUNAUTAT
D'AGLOMERACION



La Nouvelle-Aquitaine et l'Europe
agissent ensemble pour votre avenir

1. LURRALDE eSTRATEGIA BAT	04	5. engaiamendu azKARRA TRANTSIZIO LOGIKETan	12
2. eZAGUTURIKOAK	05	6. PROIEKTUen HAUTATZE PROZESUAK	13
3. eUSKAL HERRIAREN eZaUGARRI BEREZIak	06	7. GOBERnANTza	14
4. LURRALDE eSTRATEGIA PLAntan emateKO HAUTATU DIREn GAIak	09	8. KREDITUen sailKAPena EKINTza FITXaka	16

Euskal Hirigune Elkargoak estrategia bakana prestatu du tokiko eragileekin elkar adituz, lurralderako esparru bat eta helburuak ezarriz eta eragileei, hala publiko nola pribatuei, diruztapenerako hainbat baliabide erabiltzeko aukera eskainiz: Europa mailakoak, eskualdekoak, etab...

IPAR EUSKAL HERRIARENDAKO FINANTZAMENDUAK



**PAYS
BASQUE
EUSKAL
HERRIA**

EUROPAKO FUNTSAK
2023-2027

“LURRALDE eSTRATEGIA” 2022an egin zen, LURRALDEKA eta Gaika..

Partzuergo urraspide bat eraiki nahiz, parte hartze bidezko metodologia bat eman da plantan proiektuaren hastapenetik bertatik, zeinean Euskal Herriaren aniztasuna islatzen duten gai eta sektore anitz aritu baitira (baserrialdea, hiri ingurunea, Herriaren Politikaren Lehentasunezko Auzoak – HPA-QPV, Biharko Hiri Txikiak – BHT-PVD, mendialdea, itsasertza, mugazgandikoa).

HE-EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAK GIDATURIK, ESTRATEGIA HORREN OSATZEAK LURRALDEKO INDAR BIZIAK MOBILIZATU ZITUEN TOKIKO BEHARREI AHAL BEZAIN HURBILEKO ARRAPOSTUA BERMATZEKO.

Lan horrek lurraldean dagoen garapen ereduaz galdekatzeko aukera eman du trantsizio helburuei eta gizarte eta lurralde kohesioko helburuei arropostua eman ahal izateko gisan. Eman diren arropostuak lurraldeen arabera bereizi beharko dira, baina estrategian emaniko oren xedeak ukanen dituzte.

Halatan, Euskal Herriak garapen iraunkor eta bertutetsu baten eredia gauzatzeko asmoa darama lehenetsiriko 3 ardatz nagusiotan banaturik:



Xedea

Euskal Herri

elkartasun zalea: garapen moldeak geografia eta gizarte berezitasunen arabera egokitzea



Xedea

Euskal Herri

erresilientea: gure ekosistemak babestu eta klima aldaketaren aitzinean ez hain kaltebera izatea



Xedea

Euskal Herri engaiatua:

garapen eredu bertutetsuagorantzako eta bizimodu iraunkorrangoetarantzako trantsizioa areagotzea

Estrategia horrek 10,8 milioi euro eskuratu ditu «Euskal Herriarentzat» LURRALDERATU deitu EUOPAR FUNTSETATIK, Akitania Berriko Eskualdeak 2023-2027 aldirako emanik.

Eskualde
Garapenerako
Europar Funtsa

FEDER

Baserrialdeen
Garapenerako
Europar Laborantza
Funtsa

LEADER

Itsas gaietarako,
Arrantzarako eta
Akuakulturarako
Europar Funtsa

FEAMPA

Euskal Hirigune Elkargoak ditu funts horiek lurraldean kudeatzen.

Tokiko gobernantza publiko eta pribatua arduratzen da europar dirulaguntzak Euskal Lurralde Estrategian kokatzen diren proiektuei esleitzeaz.

Hemen beheko dokumentua «LURRALDE eSTRATEGIA» delakoaren laburpen bat da eta lurralderatu europar funtsen zatiari buruzkoa da bakarrik.



Estrategia gure webgunean atzeman dezakezu. (hautagaitza dosierraren webgunerako esteka)

eUSKAL HERRIA, LURRALDE ERAKARGARRIA ALDE ANITZETATIK...

Euskal Hirigune Elkargoak **158 herri biltzen ditu eta 2967 km² zabal da.**

312 278 biztanle ditu (Insee, RP – 2018), Akitania Berriko bigarren HeLEP populatuena da eta profil berezia du halako HeLEPetan: 2000 biztanle baino gutxiagoko 130 herri, 40 000 biztanle baino gehiagoko 2 herri eta biztanleen 2/3 itsasertzean bizi dira.

Lurraldea hainbat zentraltasunen inguruan da antolatua.

Euskal Herriak paisaia aberastasun bakana du, geografia ezaugarri anitzekoa.

Itsas aldea hondar eta arrokozko 35 km kostaldearekin eta 8 itsas herri direlarik; euskal kostaldean hiri inguruneak eta naturagune bikainak aldizkatzen dira, bai eta mendialdea ere (lurraldearen % 78), non 80 000 biztanletik gora biltzen baitira 111 herritan.

Euskal Herria lurralde erakargarria da, eta demografiaren emendatzea batez ere etorkinen ondoriozkoa da. Ekonomia hazkunde aski eutsia du ere. Historikoki ekoizle izan den ekonomia ehunduraz gain, bertako biztanleriari loturiko ekonomia ere azkarki garatu da lurraldearen erakargarritasunari loturik.

Frantziako bigarren turismo lekua, arrakasta horren arrazoia **duen bizi ingurune bikaina da, natura ondare ezohikoarekin, kalitatezko laborantzarekin, kultura eta nortasun joriekin.**

ALDE HANDIAK EZKUTATZEN DITUEN ERAKARGARRITASUN HANDIA

Halarik ere, bizitasun horrek ez du lurralde osoa jotzen eta horrek badu ondorioz bere garapenean. **Baserrialde nabarmenenak, nagusiki mendialdeetan, demografia galera bizitzen ari dira, bai eta biztanleriaren zahartzea ere eta leku horien biziberritze erronka handia da hor.** Lurraldean lurren gaineko presio handia dago eta prezioak izugarri goratzen dira eta zaila da bizitegien sortzearen, laborantza lurren atxikitzearen eta naturaguneen babestearen arteko oreka lortzen.

Horrez gain, kalteberatasun egoerak garatzen dira, bereziki **bizitegia eskuratzeko baldintza gaitzei loturik eta nagusiki hiri biztanleriaren zati baten prekarizatzeari** loturik, horrela desberdinkeriak areagotu eta handitzen direlarik. Duen natura ondare jori eta anitza presio antropikoen mehatxupearan da eta klima aldaketaren, baliabideen eskastearen eta bioaniztasunaren gutxitzearen jokagaietara egokitu behar da.

euskal herriaren ezaugarri bereziak



mendialdea

Euskal Mendialdeak lurren barnealdea itsaso Atlantikoarekin lotzen du, bai eta Euskal Iparraldea mugaz beste aldeko Nafarroa eta Euskadi lurraldeekin ere. Mendebaldetik Ekialderantza doan demografia gradienteak ageri zaigu: biztanleriaren dentsitatea gutxitzen doa goratasuna emendatzen eta hiriguneetatik urruntzen goazen neurrian (198 biztanle km² bakoitzeko Larrungo herrietan, eta 20tik hurbil Zuberoan). Zerbitzu publikoak, elkarte ehundura dinamikoa, kultura eta nortasun biziak eta gizarte lotura sortzen duten jardunak atxikitzea ezinbestekoa da mendialdearen erakargarritasuna atxiki eta areagotuko bada, batez ere ibarren goi aldeetan.

Euskal mendialdera urte osoan zehar joan liteke; goratasun apalekoa da baina patar malkarrak ditu. Proiektu lurraldea dugu hau, Frantzia dinamikoenetako bat den laborantza eta artzaintzako jardura baten inguruan egituratua, ondare eta ingurumen joriekin eta mantendu eta garatu nahi diren ekonomia eta eskulangintza jardurekin.

Lau urtaroak hartuko dituen «egiazko» turismo baten egituraketa, eskaintza iraunkor eta kalitatezko baten inguruan eta tokiko ondarearen begiramenez, laborantza eta artzaintzako jardurekin sinergian arituko dena, izan liteke ekonomia dibertsifikatzeko bide bat.

Mendialde guztiek bezalaxe, Euskal Mendialdeak bere orekak ahultzen dituzten aldaketa zenbait egin behar die buru:

- laborantza lurren suntsitzea, apalduko laborantzaren diren erdialdeen aberastea, natura habitaten zatitzea;
- klima aldaketaren eraginak: baldintza biogeografikoen aldaketak, espezieak goi aldeetara migratzea, espezie exotiko inbaditzaileen ugaritzea, sute arriskuaren handitzea, ur baliabidearen gutxitzea, etab.;
- eragozpenak, lekuen gehiegizko ibiltzea, naturaguneen eta espezieen hondatzea, hondakinen kutsadura, etab.

Halatan, euskal lurraldearen alde horren jokagaiak mendialde zaindu, bizi eta biztanleduna atxikitzearen inguruan antolatzen dira, bere baliabide eta ondareak zaindu eta balioan emanen dituen garapen iraunkorreko eta klima aldaketara egokitzeko logika batez.



ekonomia URDINA

Ekonomia urdinaren alorrean, **diagnostikoa eta estrategia** Ipar Euskal Herri-Hego Landen eremuan prestatu dira, arrantzarako europar funtsak gure lurraldean duen eremu historikoa baita hori.

Euskal Herriak **aspalditik du itsas ekonomia bat**, batez ere arrantzari eta **portu jardunei** loturik, bai eta **turismoari eta lerra kiroleko jardunei**. Sektore tradizional eta historikoak dira, ekonomia pizu handikoak, baina gizarte, ingurumen eta giza ohituren jokagai berriei buru egin behar dietenak.

Arrantza, egun, 156 itsasontzi eta 160 enpresa dira (aitzinetikoak, ondorengoak eta gidaritzak) Ipar Euskal Herri-Hego Landen lurraldean.

Tokiko **arrantza adarrak 1000 lanaldi osoko heineko lanpostu** zuzen ditu (800 itsasoan eta 200 lehorrean), **650 lanaldi osoko heineko** zeharkako lanpostu eta 125-155 lanaldi osoko heineko lanpostu eraginiko. Halatan, itsasoko eta gainerako lanpostuen arteko ratioa itsasoko lanpostu bakoitzarengatik 1,7-1,8 arteko lanaldi osoko heineko zeharkako edota eraginiko lanpostukoa da.

Ipar Euskal Herri-Hego Landen lurraldean bada **ontzidi aktibo bat**, 2013. urteaz geroztik jendeen kopurua gutxitu bada ere. Nazioko beste arrantza lurraldeekin erkatuz gero, tokiko kostaldeko arrantza txiki bat da (lurraldean eskulangintzako arrantzan ari diren 107 ontziekin eta lurraldetik at ur handietako arrantzan ari diren 49 ontziekin), baina **lanbide mota anitz dituena**.

Lurraldean turismo adar anitz dugu, baina **bi makro-adarrek daramate ia eskaintza osoa, zeinen artean itsasertzeko turismoa**, Euskal lurraldeko **zortzi kosta herrien inguruan**.

Hego Akitaniako lurraldea, bereziki euskal-landetar kostaldea, «Bask California» edota «Kalifornia txikia» izenez ezagun da eta lerra kirolaren eragile gehien-gehienak hor dira kokaturik.

Lurraldeen artean ageri zaizkigun aldeek erakutsi digute leku bakoitzari egokituriko azterketa garatu behar dela, lurraldeko alor bakoitzaren behar eta berezitasunetara ahal beste egokitzeko. Halatan, ekintza plana lurraldeen araberako logika batez eraikitzea ageri zaigu egokien, zentraltasunak, Hiri Politikaren Auzoak, Mendialdea, baserrialdea eta itsasertza lagunduz.



LURRALDE ESTRATEGIA PLANTAN emateko HAUTATU GAIAK

ANTOLAKETA eta LURRALDE KOHESIOA

- **LURRALDEA EGITURATZEN DUTEN HERRIEN ETA HERRI BARNEEN BIZIBERRITZEA LAGUNTZEA** berriz ere zentraltasun iraunkorrek atzemateko leku publikoak birgaituz. Ekonomia, merkataritza eta gizarte funtzio nagusiak biziberritu behar dira erakargarratasuna berriz lortzeko eta gizarte lotura berriz sortzeko herri barneetan.
- **LURRALDEA SARETZKO AUKERA EMANEN DUTEN HORNIKUNTZA ETA ZERBITZU IRAUNKORREN ESKAINTZAREN GARAPENA LAGUNTZEA, BIZTANLE OROREN BEHARREI ERANTZUTEKO.**
Bereziki zainduko dira Hiri Politikaren Auzoak (bi Baionako hirian) eta Biharko Hiri Txikiak (bost herri Ipar Euskal Herrian). Lurralde horiek ingenieritza eta animazio berezia dute egun, antolaketa proiektu egituratzaileak sor daitezen bultzatzeko, baina diru baliabide gutxi dituzte horien gauzatzeko.

1, 2 eta 3 ekintza fitxak ikus itzazu

GIZARTE KOHESIOA

- **ZAURGARRIEN DIRENENTZAKO ZERBITZUAK AREAGOTZEA, BEREZIKI HIRI POLITIKAREN LEHENTASUNEZKO AUZOETAN**, eta gizarte lotura eta kohesioa bultzatzea.
Osasun politikak eta gizarteratze eta formakuntza baliabideak areagotu behar dira ere urrunen direnentsat, bai eta gazteak bizi ibilbidean laguntzea eta lurraldera itzul daitezen bultzatzea.

3. ekintza fitxa ikus ezazu

KULTURA, ONDAREA & HIZKUNTZAK

Gizarte lotura eta elkarbizitza laguntzeko asmoz, aditze saioan parte hartu duten eragileek ondarean eta kulturaren oinarritzearen garrantzia azpimarratu dute.

- **KULTURAREN, ONDAREAREN ETA KULTURA EKONOMIAREN SEKTOREAREN EZAGUTZAK SENDOTZEA**
- **ERAGILE PROFESIONAL NOLA AMATEURRAK LAGUNTZEA SORTZE UNETIK HEDAPENERAINO.**
- **EUSKARA ETA GASKOIERA SUSTATZEA**, hizkuntza horien transmisioa eta erabilera garatu eta, halatan, biziberritu daitezten.

4 eta 5 ekintza fitxak ikus itzazu

ekonomiaren garapena

Lurraldean garapen aldeak daudela agertu da.

- **LURRALDEAN DIREN GARAPEN ALDEAK MURRIZTEKO NEURRIAK HARTZEA** hala nola; enpresa sorkuntza laguntzea (adib.: inkubatzailerak, enpresa mintegiak, hirugarren lekuak), ekonomia proiektuak berriz ere hiri barneetara ekartzea, herri egituratzailan kokatu ekonomia eta merkataritza ehundura garatzen laguntzea.
- **TURISMO IRAUNKORRA GARATZEA** eta trantsizioak laguntzen dituzten ekonomia garapeneko logikak sostengatzea.
- **GURE LURRALDEAN EKONOMIA GARAPEN OREKATURAKO BALDINTZAK SORTZEA, GIZARTE ETA ELKARTASUNEZKO EKONOMIAREN (GEE-ESS) LOGIKAK FAVORATUZ** bai eta natura baliabideak zaintzen dituzten eta gizarteratzerak, enplegura eta formakuntzara loturiko gizarte erronkak altxatzen dituzten ekonomia jarduerak, gizarte berrikuntzaren kultura hedatuz.

1, 2, 3, 6 eta 7 ekintza fitxak ikus itzazu

ekonomia urdin iraunkorra

Ipar Euskal Herriaren eta Hego Landen arteko elkarlana formalizatu da 2008-2014 programan, Arrantzarako Europar Funtsaren 4. ardatzaren harira, Comité Inter Départemental des Pêches Maritimes et des Elevages Marins (CIDPMEM) 64-40 delakoak eramanik eta eragile sozio-ekonomiko guztiek 2014-2020 aldian jarraitu dutena.

FEAMPA delakoaren egitarau berria honako hauetarako aukera da:

- **2008AZ GEROZTIK EUSKO-LANDATAR ITSASERTZEAN ENGAIATU DINAMIKAREKIN JARRAITZEA ETA ARRANTZA ETA AKUAKULTURA ADARRA EKONOMIA URDIN IRAUNKORREAN ERROTUAGO KOKATZEA.**
- **EKONOMIA URDIN IRAUNKORRAREN ADARRAK EZAGUTU ETA EGITURATZEA ETA BERRIKUNTZAK DAKARTZATEN SINERGIAK GARATZEA.**

Egun, ezin da jadanik ahantzi klima aldaketak itsas ingurunean dituen eragin handiak: uraren tenperaturaren goratzea, aberediaren eta landarediaren bilakaera, kosta lerroaren gibelatzea. Giza jardunek dakartzaten presioekin batera, eragin horien guztien bateratzeak itsas eta kostaldeko ekosistema horien kalteberatasuna areagotzen du, bai eta haiei loturiko jardun guztiena ere. Ekonomia urdinaren eragile guztiak jotzen dituzte fenomeno horiek.

- **EKONOMIA URDINAREN ADARRETA KO ERAGILEEI KLIMA ALDAKETAREN ONDORIOETARA EGOKITZECO EKINTZAK LAGUNTZEA.**

Horrekin batera, itsas kultura, itsas ingurumenari eta horri loturiko ekonomia jarduerari hertsiki loturik, ez da beti duen aniztasun guztian balioan emana, eta gero eta gutxiago bermaturik da ondare inmaterialaren transmisioa.

- **ITSAS KULTURA BALIOAN EMAN ETA TRANSMITITZEA ERAKARGARRITASUN ESKASA DUTEN ITSAS LANBIDEAK ARGITARA EMATEKO.**

15 eta 16 ekintza fitxak ikus itzazu

LABORANTZA ETA ELIKADURA

Helburua lurraldeko ororen ondasunak atxikitzeak aukera ematen duten ereduak sostengatzea da: lurra, ura, laborantza lurren eta paisaien kalitatea, etab.

Elikadurari dagokionean, honako hauek beharko lirateke egin:

- **KONTSUMO MOLDE BERRIEN JOKAGAIEI ERANTZUTEA ETA JOKABIDEEN ALDAKETA LAGUNTZEA** kontsumo molde iraunkorrago eta osasuntsuagoetarantz jotzeko.
- **TOKIKO PRODUKTUEN ERALDAKETA, BANAKETA ETA KONTSUMOA LAGUNTZEN DITUZTEN TRESNA KOLEKTIBOEN GARAPENA LAGUNTZEA** ororen esku jartzeko elikadura osasuntsu eta kalitatezkoa, Euskal Lurraldeko Elikadura Proiektuarekin bat etorritik.

10. ekintza fitxa ikus ezazu

euskal mendialdea

Euskal Mendialdean, Leader 2007-2013 eta 2014-2022 programan abian eman dinamikarekin bat etorriz, honako xede hauek ditu estrategiak:

- **MENDIALDE BIZI ETA JENDEZTATUA ATXIKITZEA** bizitegi, zerbitzu eta hornikuntza eskaintza bat egin eta garatuz. Dituen aniztasunak erabiliz, lurraldeak loturak eta harreman eta elkarrezagutza aukerak sortu behar ditu kostaldeko eta barnealdeko biztanleen artean
- **HORNIKUNTZA ETA ZERBITZU SOZIO-EKONOMIKOEN GARAPENA SOSTENGATZEA** mendialdeko herrixken erakargarritasuna areagotzeko.
- **LURRALDEAREN GARAPENA LAGUNTZEA LABORANTZA-ARTZAINZTA TRANSHUMANTEA AREAGOTUZ, MOTA ANITZETAKO EKONOMIA JARDUEREN SORTZEA SOSTENGATUZ** mendialdean, eta etorkizun handiko adarrak balioan emanez, leku horietako garapen iraunkorrari jarraikiz.
- **KUDEAKETA KOLEKTIBOA EGIN ETA ERDIALDEKO ZONAK BALIOAN EMATEA** bai eta Euskal Mendialdearen laborantza produktuak balioan ematea ere.
- **TOKIKO EGURRA BALIOAN HOBE EMAN DADILA BULTZATZEA, EGITEKO DEN EUSKAL EGUR PLANAREKIN LOTURIK.**

Euskal Mendialdean diren jarduera anitzek, laborantza, basozaintza, turismo eta aisialdikoek, erabilera gatazkak jasaten dituen lurraldea bihurtzen dute Euskal Mendialdea.

➤ **MENDIALDEAN ERABILERA ANITZEN KUDEAKETA HOBETZEN DUTEN EKINTZAK SOSTENGATZEA, BAI ETA TURISMO IRAUNKORRA ETA EUSKAL MENDIALDEAREN ONDAREAK BALIOAN EMATEN DITUZTEN EKINTZAK ERE.**

Mendialdeko lekuak leku bereziki kalteberak dira eta jadanik nabarmentzen ari diren klima aldaketaren ondorioen gaineko egiazko gogoeta bati ekin beharko litzaioke, heldu diren urteotan gauzatu beharreko egokitze estrategia baten zehazteko.

Euskal Mendialdearen lurraldeak dituen berezko jokagaien aitzinean eta LEADER programaren bi belaunaldietan egin den lanaren jarraipen gisa, LEADER funtsak laborantza eta basozaintza giroko baserrialde eta mendi lurralde horretan sostengatu dituen ekintzak jomugatzat hartzea erabaki da. LEADER funtsa Euskal Mendialdera bideratzeak tokiko garapeneko eta baserrialdeen aldeko berrikuntza dinamika batekin jarraitzeko aukera ematen du.

9, 10, 12, 13 eta 14 ekintza fitxak ikus itzazu

**Mugazgaidiko proiektuentzat,
8 eta 11 fitxak ikus itzazu**

engaiamendu azkARRA TRANTSIZIO LOGIKETAN

euskAL KLima PLana 2021eko ekainean ERABAKI ZEN eta euskAL HIRIGUNE ELKARGOAREN HARI nagusia DA.

Klima aldaketaren aurkako politikaren dokumentu nagusi honek tokian gauzatzen ditu nazioarteko eta nazio mailako helburuak eta ekologia eta energia trantsiziorako eskualde mailako politikan kokatzen da. Lurraldeko Aire-Klima-Energia Planak (LAKEP-PCAET) orientabide nagusiak zehazten ditu, bakoitza hainbat asmotan banatua.



“LURRALDE ESTRATEGIAREN” EKINTZA PROGRAMAK euskAL KLima PLANAREN asmoak LAGUNTZEN DITU, ZEINEN artean HONAKO Hauek DITUGU:

- › Natura ondarea zaintzea eta erresilientzia prestatzea naturan oinarritu aterabideekin
- › Antolaketa jasangarri eta koherentea zehaztea karbono gutxiko lurralde baten zerbitzura
- › Laborantzaren, arrantzaren eta tokiko elikaduraren arteko lotura azkartzea

Horretan oin harturik, proiektuen azterketa taulak irizpide ekoarduratsuak hartuko ditu kontuan ekologia eta energia trantsizioan bertutetsu diren proiektuak hautatzeko.


Le PROCESSUS DE SÉLECTION DES PROJETS

Euskal Elkargoak proiektu eramaileak desmartxako etapa guzietan lagunduko ditu .



PROIEKTU ERAMAILEAREN ESKARIA

financements.projets@communaute-paysbasque.fr



UNION EUROPÉENNE

Europako dirulaguntza batzuen lortzeko hautaketa-prozesua

PROIEKTUA AZPITALDETAN AURKEZTEA

Lurraldeturiko europar funts horien kudeaketak dirulaguntza horien esleipenaz arduratuko den tokiko gobernantza plantan ematea dakar.

HONELA ANTOLATZEN DA GOBERNANTZA:

GRUPE D'ACTION LOCALE (GAL) / COMITÉ DE SÉLECTION

40 kide : 50 % publikoak / 50 % pribatuak



Hautaketa batzordekideak azpitaldeetako baten kide izan beharko dira nahitaez

ARRANTZA eta AKUAKULTURA TOKIKO EKINTZA TALDEA (AATET-GALPA)



"HERRI eta HERRIXKAK"



"mendIALDea" AZPITALDea



HAUTAKETA BATZORDEAK:

- **PROIEKTUAK HAUTATZEN DITU** azpitaldeek aurkeztu ondoren
- **JARRAIPENA ETA EBALUAKETA EGITEN DU** kredituen kontsumoaz eta estrategiaren gauzatzeaz
- **FEAMPA-REN HARIRA SOSTENGATU PROIEKTUEN BERRI HARTZEN DU** azken hautaketa Akitania Berriko Eskualde Kontseiluaren batzorde iraunkorrean eginen delarik

AZPITALDEEK:

- **ENTZUNALDIAN HARTZEN DITUZTE** estrategiarako hautagai diren **PROIEKTU ERAMAILEAK**
- **PROIEKTUA HAUTAKETA TAULAREN ARABERA AZTERTZEN DUTE** eta **AITZIN HAUTAKETAKO IRITZIA EMATEN DUTE** Hautaketa Batzordearentzat

HAUTAKETA BATZORDEAREN OSAERA

ARAUZKO ZENBAIT PRINTZIPIO GOBERNANTZA INSTANTZIEN OSAERARAKO:

- **emakumezko/gizonezko** parekotasunerantza joatea zaintzea;
- estrategiaren **gai guztiekin** (gizarte eta elkartasunezko ekonomia, turismoa, antolakuntza, baserrialdeen garapena, ekonomia urdina, laborantza eta oihana, hiri politika...) harremanetan diren ordezkariak izan daitezela zaintzea;
- Euskal **lurralde osagai guztien** (baserrialdea, hiri ingurunea, itsasertza, mendialdea, ...) ordezkaritza egokia izanen dela zaintzea;
- **eragile publikoen** (EHE hautetsiak, CD64, Sindikatu Batzordea, GEHZ-CIAS, LuKE-SCOT,IPE- GIP HEZ-DSU, IPE-GIP Itsasertza) **eta pribatuen** (sozioprosesionalak eta elkarten ordezkariak) arteko oreka

EGITEKOAK

HAUTAKETA BATZORDEAK HONAKO EGITEKO HAUEK DITU BERE GAIN, 2021/1060 ARAUDIAREN (EB) 33. ARTIKULUAK ZEHAZTU BEZALA:

- **tokiko eragileek eragiketak presta eta gauzatzeko duten gaitasuna areagotzea;**
- **hautaketa prozedura eta irizpide garden eta ez baztertzailak prestatzea,** interes gatazkarik izan ez dadin eta interes partikularra duen inolako talderik hautatze erabakiak kontrolatuko ez dituela bermatzeko;
- **proposamen deialdiak presta eta argitaratzea** halakorik beharko balitz;
- **eragiketak hautatzea, sostenguaren kopurua erabakitzea** eta proposamenak onartu aitzin horien onargarritasunaren azken egiaztapena egiteko ardura duen erakundearen mende uztea;
- **estrategiaren helburuak gauzatzeko eginiko aitzinamenduen jarraipena** egitea;
- **estrategiaren gauzatzea ebaluatzea.**

KREDITUEN SAILKAPENA EKINTZA FITXAKA

EUSKAL LURRALDEAREN ESTRATEGIA	FEDER OS5	FEDER MENDIGUNEA	LEADER	FEAMPA
LEHENTASUNEZKO 1. HELBURUA: Kohesioa eta elkartasunak bultzatzea, ororentzat helgarri diren zerbitzu eta hornikuntzak garatuz, lurralde zuzentasun eta garapen xuhur eta iraunkorraren logika batez	2 100 000 €			
1. ekintza fitxa: «Biharko Hiri Txikiak» diren herrien garapena laguntzea, biziberritzen, zerbitzuak eskura jartzen eta hornikuntzak egituratzen parte hartzen duten proiektuak sostengatuz	800 000 €			
2. ekintza fitxa: Herritarrentzako zerbitzu eta hornikuntzen eskaintzari indarra ematea, Euskal Herria bizirik eta elkartasunean atxikitzeko	1 300 000 €			
LEHENTASUNEZKO 2. HELBURUA: Gizarteratzea, elkartasunen garapena eta elkarrekin ongi bizitzea faboratzen dituzten urraspide eta esperimazioak laguntzea	2 200 000 €			
3. ekintza fitxa: Hiriaren Politika-Auzo Lehenetsien garapena laguntzea	1 400 000 €			
4. ekintza fitxa: Baliabide berritzaileen bitartez ondarea eta kultura atxiki, balioan eman eta sustatzeko	500 000 €			
5. ekintza fitxa: Euskara eta gaskoia sustatuz eta balioan emanez kultura eskubideak eskuragarri izanen direla bermatzea	300 000 €			
LEHENTASUNEZKO 3. HELBURUA: Ekonomiaren garapena trantsizioen areagotzaile izan dadila, enpresen jokabideen aldaketan zerbitzura eta eragin positiboa izanen duten jarduerak sortzen laguntzea	679 437 €			
6. ekintza fitxa: Turismoa iraunkorki eta baliabideen eta bizimoduaren begiramenez gara dadin laguntzea	100 000 €			
7. ekintza fitxa: Gizarte eta Elkartasunezko Ekonomiaren jarduerak sostengatu eta lankidetzaren bitarteko ereduaren garapena laguntzea	530 000 €			
8. ekintza fitxa: Lankidetzaren ekintzak garatzea	49 437 €			

- mendialdea
- ekonomia urdina
- herriak eta herrixkak



UNION EUROPEENNE

EUSKAL LURRALDEAREN ESTRATEGIA	FEDER OS5	FEDER MENDIGUNEA	LEADER	FEAMPA
LEHENTASUNEZKO 4. HELBURUA: Mendialdea zaindurik, bizirik eta jendeztaturik atxikitzea, dituen baliabideak eta ondareak zainduz eta balioan emanez, garapen iraunkorreko eta klima aldaketari egokitzeko logika batez		3 134 337 €	848 929 €	
9. ekintza fitxa: Erdialdeak kolektiboki kudea eta balioan ematea			250 000 €	
10. ekintza fitxa: Euskal mendialdearen laborantza eta oihangintza produktuak balioan ematea, elikadura osasuntsu eta iraunkorraren logika batez			568 929 €	
11. ekintza fitxa: Lankidetzak ekintzak garatzea			30 000 €	
12. ekintza fitxa: Mendialdearen erabileranitzaren kudeaketarekin jarraitzea		300 000 €		
13. ekintza fitxa: Turismo iraunkorra garatu eta Euskal Mendialdearen ondareak balioan ematea		834 337 €		
14. ekintza fitxa: Mendialdeko herrixken erakargarritasuna areagotzeko aukera ematen duten hornikuntzak eta zerbitzu sozioekonomikoak garatzea		2 000 000 €		
LEHENTASUNEZKO 5. HELBURUA: Ekonomia urdin iraunkorraren aldeko lankidetzari ekitea				1 000 000 €
15. ekintza fitxa: Ekonomia urdinak klima aldaketara egokitzeko egin beharrekoetan laguntzea				712 500 €
16. ekintza fitxa: Akitaniako Hego-mendebaleko itsas kultura balioan eman eta transmititzea				287 500 €
LEHENTASUNEZKO 8.1 HELBURUA: Lurralde estrategia integratua animatu eta gauzatzea...			895 973 €	
OROTARA	4 979 437 €	3 134 337 €	1 744 902 €	1 000 000 €
EUROPAR FUNTS ORO BATERA		10 858 676 €		

IPAR EUSKAL HERRIARENDAKO
FINANTZAMENDUAK

**pays
Basque**
**euskal
HERRIA**

EUROPAKO FUNTSAK
2023-2027



COMMUNAUTÉ
D'AGGLOMÉRATION

HIRIGUNE
ELKARGOA

COMUNAUTAT
D'AGLOMERACION



@communautePB | communaute-paysbasque.fr



UNION EUROPÉENNE



RÉGION
Nouvelle-
Aquitaine

*La Nouvelle-Aquitaine et l'Europe
agissent ensemble pour votre avenir*